

Txostena



beaz  
2017

# Indice

<b>Diru-laguntzen kudeaketa</b>	<b>4</b>	<b>Ekimen sektorialak</b>	<b>21</b>
<b>Zerbitzuak</b>	<b>6</b>	<b>Bizkaia Sortzailea</b>	<b>22</b>
Zerga-kalifikazioko txostenak		BiDC	<b>22</b>
Barne-ekintzailletza		Bilbao Bizkaia Film Commission	
Open Innovation dinamikak		Artisautza	
SLen sortze telematikoa		Ekintzailletza eta Gizarte berrikuntza	
Bizkortzea		<b>Inpaktua enpresa-sarean</b>	<b>25</b>
Finantzaketa-Dirulaguntza mapa		<b>Ekintzailletza eta berrikuntza eragilea aktiboa</b>	<b>26</b>
EEN Sarea		EJ-SPRIrekin batera egindako jarduerak	
BEAZko guneak		Bilbao Ekintzarekiko lankidetzaren eremua	
Bizkaia Mentoring Network		Bizkaiko Foru Aldundia - Masschallenge eta	
Enpresa proiektuen hedapena		CICen arteko lankidetzaren eremua	
Prestaeekin		Bizkaia Orekan	
<b>Inkubagailuen kudeaketa</b>	<b>14</b>	<b>Ekintzaile eta enpresa berritzaileen</b>	
BIC Bizkaia		<b>errekonozimendua</b>	<b>29</b>
KBi Digital		<b>Etekin operatiboa</b>	<b>31</b>
Design Kabi			
Zitek			
Deusto kabi			
Bic Bizkaia Ezkerraldea			

Beaz Bizkaiko Foru Aldundiaren sozietate publiko bat da eta haren helburua enpresei eta ekintzaileei proiektu berriak sortzeko, berritzeko eta nazioartera zabaltzeko egiten dituzten ahaleginetan laguntzea da.

Beaz Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Foru Sailaren menpean dago eta haren helburua bat dator Sailaren xede nagusiarekin: jarduera ekonomikoa eta lanpostu kualifikatuak haz daitezen laguntzea.

Helburu horiek lortzeko Beazek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren diru-laguntzak kudeatzen ditu eta, gainera, gero eta zerbitzu-aukera zabalagoa dauka proiektu berritzaileak finantzatzeko, inkubagailuak ahaztu gabe.


Horren guztiaren atzean 44 langileko taldea lanean ari da enpresei eta ekintzaileei laguntza emateko.





## Diru-laguntzen kudeaketa

Beazek, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde laguntzaile legez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak Bizkaiko ekintzaile eta enpresen esku jartzen dituen programen zehazketa, balioztapen, erabaki eta kudeaketan esku hartzen du.



## Kudeatutako programak

- Enpresa proiektu berritzaileen garapena // Ekintzaile
- Berrikuntza eta inbertsio arreratuak sustatzeko 2i plana
- Berrikuntza, nazioartekotze eta inbertsioari bultzada osoa emateko 3i programa
- Nazioartekotze programa
- Artisautza
- Bizkaia Sortzailea
- Gizarte ekintzailera eta berrikuntza

Kudeatutako programak: 7

Kudeatutako programetan adjudikatutako fondoak: 16.313.293 €

Aurkeztutako proiektuak: 766

Onartutako proiektuak: 466

Hurrengo taulan enpresen sorkuntza, berrikuntza eta nazioartekotzerako zeharkako diru-laguntzen inpaktua agertzen da:

Alorra	Onartutako proiektuak	Aurreikusitako lanpostu sorrera 3 urtera	Aurreikusitako fakturazioa 3 urtera
Ekintzailera	109	693	99.799.947,10 €
Berrikuntza 21	166	385	171.200.249,19 €
Nazioartekotzea	71	94	35.555.427,69 €
3i	15	66	29.895.831,54 €

Oharra: Programa sektorialen inpaktua (Bizkaia Sortzailea, Artisautza, eta Gizarte Ekintzailera eta Berrikuntza) ondorengo atal batean azalduko da.





## Zerbitzuak

Beazek zenbait zerbitzu eskaintzen ditu enpresen sorkuntza, hazkunde eta finantze-prozesuan funtsezkotzat jotzen dituen alderdiak indartzeko



## Zerga-kalifikazioko txostenak

2017an, bostgarren urtez, Beazek Berrikuntza teknologikoaren zioz Sozietateen Gaineko Zergan kenkariak eskatzeko kalifikazio txostenak egin zituen. Zerbitzu hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eta Beazek sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren fruitua da. Gehikuntza nabarmena egon da egindako txostenen kopururuan eta aplikatutako kenkarietan.

Egindako txosten kopurua: 169 espediente
Enpresa kopurua: 133 enpresa
Aplikatutako kenkariaren aurreikuspeneko zenbatekoa: 1.525.020,18 €

Halaber, 2017an, Beaz zerga kalifikaziko txostenak egiten hasi zen, sozietateen gaineko zergaren 64 bis artikulua babesean. Ikerkuntza

## Barne-ekintzailtza

2015ean Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak abian jarri zuen Barne-ekintzailtza bultzatzeko ekimena hiru foru aldundien eta euskal BICen laguntzarekin; Beaz zentro horietako bat da. Antolakundeetatik bertatik negozio berriak sortzeko helburuarekin sortu zen ekitaldiaren barruan zabalkunde, gaikuntza eta networking jarduerak eta adituen laguntza daude. 2017ko ekitaldian barne-ekintzailtza bultzatzeko planaren 3. edizioa burutu zen.

eta garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuak egiteko zerga pizgarriak kontuan hartu behar den finantziario-tresna dira. Aukera interesgarria da I+G+b proiektu bati hasiera eman nahi dietenentzat, laguntza ekonomikoa bilatzen ari direnean, eta baita beren hornitzaileen teknologia maila hobetu nahi duten enpresa erreferenteentzat ere. Bizkaian enpresen berrikuntza bultzatzeko beste era bat, Sozietateen gaineko Zergan oinarritua, eta gakoa bi enpresaren arteko lankidetzaren dena: batek proiektu berria garatzen du eta besteak finantzatu egiten du. Bion artean –Ogasun eta Finantzak foru Sailak beharrezkoa den aurretiazko zerga kalifikazioko txostena egiteko baimendutako erakunde gisa– Beaz dago. Lotesleak eta doanekoak diren txostenak ematen ditugu.

Egindako txosten kopurua: 17 espediente
Enpresa kopurua: 14 enpresa
Aplikatutako kenkariaren aurreikuspeneko zenbatekoa: 1.989.603,87 €

Bizkaiko 13 enpresa eragilerekin lan egin dugu: Airlan, Artech, Batz, Cikautxo, Euskaltel, Gestamp, ITP, Maier, Petronor, Grupo Urbegi, Tecuni, Velatia eta Vicinay Cadenas.
24 enpresari eman diogu laguntza Lehiabide eta Barne-ekintzailtza programen bitartez.
Aurreikuspenen arabera, laguntza jaso duten Bizkaiko barne-ekintzailtza proiektuek 174 lanpostu eta 45.473.000 €-ko fakturazioa sortuko dute.



## Open Innovation dinamikak

Proiektu kolaboratiboak hautemateko eta enpresa erreferente, ETE eta startupen arteko harremana errazteko, 2017an berrikuntza irekiko (open innovation) zenbait ekimen burutu dira.

**Bizkaia Open Future.** Programa hau Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Telefónicaren arteko elkarlanean burutzen da. Helburua Bizkaiko enpresa erreferenteak, ETEak eta startupak 4.0 industiarantz alda daitezen laguntzea da. Horretarako Bizkaiko enpresa erreferenteen 5 erronka prestatu dira. 155 proposamen jaso dituzte: 74 startupenak, 48 ETEenak, 7 unibertsitate eta teknologia zentroenak eta 26 ekintzaileenak. Proposamen guztietatik (155), 65 Euskadikoak izan dira, 40 Estatukoak eta 50 nazioartekoak.

**BIND 4.0.** Bizkortze programa publiko-pribatua, industria eta ekintzailetza ekosistema indartzeko xedeaz. Eusko Jaurlaritzak bultzatzen du eta Beazek BIC Bizkaiaren bidez parte hartzen du, haren eginkizun nagusia inkubagailuan programan parte hartzen duten lurraldetik kanpoko startupek lekua egitea da. 2017. urtean burutu zen bigarren edizioan Bizkaiko 14 enpresa eragilek parte hartu zuten eta nazioarteko 300 startup baino gehiagorekin partekatu zituzten beren beharrianak. Une honetan Bizkaian 26 lankidetzaproiektu gauzatzen ari dira.



**Day One 2017 Pierre Fabre Jardunaldia.** Institut de Recherche Pierre Fabre eta Tolosako Minbiziaren Lehiakortasun Polo Bio-Santék Bic Bizkaian burutu zen Basque Health Cluster Day One aurkeztu zuten, biofarmazia eta osasun arloko startupen proiektu berritzaileak bilatzen dituen berrikuntza irekiko ekimena. 30 proiektu aukeratu dira Europa osoan eta horietatik 30 euskal enpresek aurkeztu dituzte

**European Study Group with Industryren 131. edizioa.** Ekitaldi hau mundu osoan errekonozituta dago matematika eta industriaren artean ezagutza transferitzeko. 2017an lehenengo aldiz burutu zen Euskadin BCAMen eskutik eta Beazen laguntzarekin. Astebetez zenbait ikertzailek euskal enprekin batera lan egin zuten beren eguneroko



erronkei matematik aplikatuan oinarritutako konponbideak emateko.

**Berrikuntza Iberdolaren hornitzaileekin.** Iberdrolak, Beazen laguntzarekin, abian jarri zuen programa bat bere hornitzaileekin batera produktu eta zerbitzu berrien garapena bizkortzeko eta Bizkaian berrikuntza bultzatzeko. Ekimen hau sozietateen gaineko zergaren 11/2013 foru arauak berrikuntzarako aurreikusten dituen zerga kenkarietan oinarritzen da. Bizkaiko 4 proiektu onuratsen ari dira aukera honetaz.

**Biz Open.** Bizkaiko enpresa erreferenteak berrikuntza ekosistemarekin erronka teknologiko baten bidez lotu nahi dituen berrikuntza irekiko programa. 2017an jarri zen abian RETAbet.es-en parte-hartzearekin eta Beazen laguntzarekin: 14 startup parte hartzen ari dira lehen deialdian.



**“ideak pil-pilean”.** lantegia. 2017ko Bilbao Bizkaia Dweek-en barruan, Beazek lantegiak antolatu ditu proiektu bakarrean elkartzeko bi enpresa gastronomiko eta zenbait sormen arlotako profesionalak. Zehazki, Bizkaiko 23 sormen-enpresak esku hartu zuten.



Berrikuntza irekiko dinamiketan beren erronkak partekatu dituzten enpresen kopurua: 29

Proposamenak egin dituzten startup eta ETEak: 500etik gora

## SLen sortze telematikoa

Enpresak telematikoki sortzeko zerbitzua funtzionatzen eta finkatzen egon den laugarren urtea; egindako eskaerak %50 handitu dira. Izapidetzeaz gain, ekintzaileen proiektuez informatzeko eta aholkatzeko zerbitzuak ematen dira.

Informazio eta aholkularitza: 49 enpresa

Sortutako SLak: 29



## Bizkortzea

Enpresak bizkortzeko zerbitzuaren laugarren urtea. Aurreko urteetan bizkortu ziren proiektuekin (On Bizkaia proiektuei lotuta) izandako balantze positiboaren ondorioz Beazek zerbitzua zabaldu zuen 2017. urtean, hazteko gaitasun handiko proiektuak dituzten beste antolakunde batzuetan ere erabiliz.

11 enpresa bizkortuta

Fakturazioaren batez besteko gehikuntza 1-2 urtean: %60

Lanpostuen batez besteko gehikuntza 1-2 urtean: %26

## Finantzaketa-Dirulaguntza mapa

ETEEK bultzatutako proiektuetan finantzazio handiagoa lortzeko, Finantzaketa-Dirulaguntza mapa zerbitzuak bilerak antolatzen ditu CDTI, ENISA, ICEX, Seed Capital Bizkaia eta SPRI taldeko teknikariek. 2017an, lehenengo aldiz, jardunaldi bakarrean batu ziren administrazioek eskaintzen dituzten finantzaketa publikoko lineak eta enpresek oso ontzat hartu zuten.

Gonbidatutako antolakundeak: 4

Bertaratutako enpresak: 77

Laguntza ematen duten erakundeen eta enpresen arteko bitariko bilerak: 53

## EEN Sarea

Beazek ETEen nazioarteko lankidetzak bultzatzeko zenbait ekitaldi antolatzen ditu beste erakundeekin batera eta horietan parte hartzen du; Europako homologoekin elkarlanean jardun nahi duten ETEei aholkularitza ematen die eta bazkideak bilatzen dizkie; eta Saretik eskaintzen diren zerbitzuei eta Europako programeen bidez dauden finantzatze-bideei zabalkunde zabala ematen die hainbat bide erabiliz.

Hemengo/eskualdeko ekitaldiak beste batzuekin batera antolatzea: 6

Hemengo/eskualdeko ekitaldietan parte hartu dutenak: 82 enpresa

EEN Sareak enpresei eskainitako beste zerbitzu batzuk: 46 enpresa

Interes-adierazpenen kudeaketa: 12 enpresaren 34

Informazio-buletinak enpresentzat, ekitaldi eta enpresa-profilez: 310

Buletinak jasotzen dituzten enpresak: 106 enpresa



## BEAZko guneak

Beazek enpresa eta ekintzaileen esku jartzen dituen guneetan gero eta jarduera gehiago antolatzen da. Hainbat jarduera-mota burutzen da -horietako asko sormen-arloak bultzatuak-, eta gelen erabileran lan-dinamika desberdinak erabiltzen dira Beazko guneetan, haien ikusmirak zabalduz.

Bizkaia Sortzailea Guneako jarduerak: 95

Bizkaia Sortzailea guneako jardueretara bertaratutakoak: 2.194

Beazko gelen erabilera: Kanpoko eragileekin edo kanpoko eragileen artean egindako bilerak: 2.136 pertsona



## Bizkaia Mentoring Network

Beazek 2016. urtetik kudeatzen duen sare honek harremana errazten du enpresetako mentoreen eta hazkunde handia izateko aukera daukaten proiektuak garatzen ari diren startupen artean, proiektu horiek bizkortzeko lagun dezaten. Sarea sei urte edo 10 langile arteko enpresentzat pentsatuta dago, bizkortzeko proiektu jakin bat identifikatuta izan behar dutenak. 2017an sareak 48 mentore izan ditu eta proiektu berriak bizkortzeko laguntzen ahalegindu dira.

Erregistratutako aholkulariak: 48

Mentoring prozesuan ari diren startupak: 16

## Enpresa proiektuen hedapena

Beazen hedatze-kanalak bultzatu eta dibertsifikatu egin dira Bizkaiko enpresa eta ekintzaileen jardura eta proiektuei zabalkundea emateko. 2017an, bereziki, bultzada eman zitzaion bideoak argitaratzeari eta gizarte sareetan presentzia izateari.

Bisitaldiak webera: 48.600

Hileroko buletinak: 12

Argitaratutako bideoak: 33

Gizarte sareak: Twitter, LinkedIn, Youtube, flickr.

Beazen argitalpenak: 2



## Prestaekin

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Enpresa Sustapenerako Zerbitzuarekin batera, Beazek, bereganatze-saioak antolatzen ditu enpresa ekimen berritzaileen garapen eta eskalagarritasunerako kritikoak diren eremuetan. Ekimenaren helburua Aldundiak enpresa berri bat sortu edo proiektu berritzaile bat garatu duten pertsonei ematen dien babesa hobetzea da, hainbat gaitan jakintza sustatuz: negozio-eredua, marketin digitala, komunikazioa... 2017. urtean 2018ko urtarrilean hasiko den edizio berria diseinatu zen.



### Gaikuntza-moduluak

- Ideiatik errealitatera
- Finantza informazioa interpretatzen ikasi
- markaren irudia
- Lean ekintzailletza
- marketin digitala
- Inbertsiogileen bila
- Komunikazio ezazu zeure proiektua

# Inkubagailuen kudeaketa

Bezek proiektuak inkubatzeko eta bizkortzeko sare propioa dauka.

## BIC Bizkaia

BIC Bizkaia teknologia bio-mikro-nanoetan, manufaktura aurreratuan eta teknologia garbietan espezializatutako inkubagailua da, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Parke Teknologikoak sustatua eta Bezek kudeatua.

2017a hirugarren urtea bete zuen eta, %90ko okupazio-maila lortzeaz gain, berebiziko garrantzia eman zaio BICen dauden startupak bizkortzeari



Inkubatutako enpresak: 23

Enplegua inkubatutako enpresetan: 303 (210 gizon eta 93 emakume)

Inkubatutako enpresen fakturazioa: 22.913,500 €

## Ikustaldi, jardunaldi eta azokak

- Bic Bizkaian guztira egindako jardunaldi edota ikustaldiak: 32
- Guztira bertaratutako pertsonak: 617
- Ekainaren 19tik 22ra Bic Bizkaia Biceko zenbait enpresa ordezkatzuz 2017ko BIO International Conventionen parte hartu zuen.



## Inkubatutako enpresak

Aadvantage Lab SL

A3Z

Addimen Bizkaia SL

Aleovito SL

Bioftalmik SL

Biofungitek SL

IMG Pharma Biotech SL

Ingran Engineering SL

Fastbase Solutions, SL

VI Ambiental (Antes Kimiker)

Lumiker Aplicaciones Tecn. SL

Novattia Desarrollos SL

Oceantec Energías Marinas SL

Osasen Sensores SL

RDT Ingenieros Bilbao SL

Saionaimer SL

Sendabio SL

Smart Monitoring Industrial

Applications SL

Stemtek Therapeutics SL

The Art of Discovery

Tubacex Innovación AIE

Tubacex Up-Stream Technologie

Vacunek SL



## KBi Digital

KBi Digital, ekintzailletza digitaleko proiektuetarako inkubagailu aurreratua funtzionatzen egon den hirugarren urtea izan da. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarrekin bultzatu eta Bilbao Ekintza eta Beazek kudeatzen dute. 2017an inkubatutako enpresetan haien hazkunde, bideragarritasun eta merkatuko posizionamendua garatzeko estrategia finkatu zen.

KBi Digitaletan badu bereizgarri bat, bizkortze-zerbitzu pertsonalizatua, hau da, ekintzailletza digitaleko adituek laguntza ematen diete startupeko honelakoxe proiektuen merkaturatze eta eskalabilitatean kritikoak diren gaiak identifikatzen eta abian jartzen. KBi Digital, bertan kokatutako startupak bizkortzen laguntzeko berariazko zerbitzuak dauzkan ingurunea da. Aholkularitza pertsonalizatua emateaz gain badu trebakuntza programa bat enpresen profilari egokituta eta proiektu berriak erakartzeko dinamizatzeko programa ere.

Okupazioa: %75

Inkubatutako enpresak: 15

Profesionalak: 3

Enplegua inkubatutako enpresetan: 49

Fakturazioa inkubatutako enpresetan: 1.300.000 €

Trebakuntza eta zabalkunde jardunaldiak: 4

Jardunaldietako parte-hartzea: 47 parte-hartzaile

## Jardunaldiak

- Networking KBiko enpresekin
- KBiko enpresa eta babesleen arteko bilera
- Open mentoring
- Fundraising prestakuntza eta inbertsiogileei aurkeztea

### Inkubatutako enpresak

Decoramus Network S.L.

Fundación Solidarters

Wiki opps

B&V Aplicaciones móviles SL

Naian Software SL

Wegowmusica, SL

Restuento SL

Weereel spread the talent SL

Tucho Consulting for change SL

Kasitoko

Worktel oficina móvila SL

Onura bat SL

Koalak studios koop. Elk.txikia

Venuesplace SL

KB innovation system SL

### Profesionalak

Markos Espina

Iñaki Arrieta

Florencio Carro



## Design Kabi

Design Kabi negozioia zehazteko eta enpresaren bideragarritasuna aztertzeko fasean dauden enpresa proiektuetarako inkubagailua da. 2017an Design Kabin Play Station Games Camp Bilbao Bizkaiaren lehen edizioa burutu zen, bideo-jokoen sektoreko startup berriak merkatura hel daitezzen lortzeko.

Ekintzaileak Design Kabin: 18

Play Station Campen garatutako bideo-joko-estudioak: 2

---

### Inkubatutako proiektuak

Clic&Play

Geisher

Plato

Hunters of Magic SL (White Spell)

Ninaut Engineering, S.L.

SouthCol Wallet

Vostok Electric

GrayBella



## Zitek

Zitek EHUK, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Beazek sustatzen duten ekimena da eta haren helburua EHUren Bizkaiko Campusean ekintzailtza-kultura zabaltzea eta enpresa berritzaileak eta teknologia oinarria dutenak sortzea da. Horretarako hiru unibertsitate haztegi dauzka -Leioa, Portugalete eta Bilbon-, eta baita Ekintzailtza kultura zabaltzeko programa,. Honen barruan daude Abiatu Sariak (VI. edizioa 2017an), Think Big lehiaketa eta Hasten Ikasten mintegiak. 2017an 18 urte bete ziren Estatuan ekimen aitzindaria den Zitek abian jarri zenetik.



Inkubatutako enpresak: 21

Ekintzailtza kultura programa: 15 ekimen

Enplegua inkubatutako enpresetan: 57

Fakturazioa inkubatutako enpresetan: 2.793.000 €

### Inkubatutako enpresak

Alex & Alex  
Arquinea  
Basquet, C.B.  
Edurobotic  
Green Proiekt, C.B.  
Gyk  
Ibine  
InCharge Ibérica, S.L.  
Insignia, S.L.  
Keynetic Technologies  
Meiquer ingeniería, S.L.  
Noismart  
Norlock, S.Coop.  
Sogestraf  
Uknatura  
Nemergent Solutions S.L.  
Swift Flats  
Tao Marketing & Web Design  
Mr Flash  
Karma Technologies  
Ekobideak

### Ekintzailtza kultura bultzatzeko programako ekimenak: 15

Hasten Ikasten mintegiak  
Ikasberri Zientzia eta Teknologia  
Ikasberri Arte Ederrak  
Ekonomia eta Enpresa Zientzien  
Fakultateko hitzaldiak  
IGETko enplegu jardunaldiak  
Enpresak Aurkezteko jardunaldia,  
ZTF  
DEMA ekintzailtza jardunaldiak  
Ekinduz Sarrikoren aurkezpena  
B-CUBES Sarrikoren aurkezpena  
Biomedikuntza eta Ekintzailtza  
Master Coaching  
Think Big sariak  
Xtart-Up Experience ikastaroa  
Zitek coffe jardunaldia (3)  
Etorkizulan  
Ekintzailtza Masterreko  
jardunaldia

## Deusto kabi

Teknologia oinarriko haztegi hau Bizkaiko Foru Aldundiak eta Deustuko Unibertsitateak bultzatzen dute unibertsitate spin-offak bultzatzeko xedeaz. Beazek bertan ekintzaileei aholkularitza eta orientabidea eskaintzen die.

Inkubatutako enpresak: 15

Enplegua inkubatutako enpresetan: 55

Fakturazioa inkubatutako enpresetan: 1.250.789 €

## Ekintzailetza kultura bultzatzeko ekimenak

- Marketing Digitala mintegia ekintzaileentzat
- Finantzak ekintzaileentzat mintegia
- Barne-ekintzailetzari buruzko jardunaldiak XIII. Enplegu eta Ekintzailetza Foruaren barruan - Deustuko Unibertsitatea
- Ekintzailetzaren Aste Globala - Deusto Emprende

## Inkubatutako enpresak

AIA S.L.  
Appkideak S.L.  
Artia Mobility  
Gain Motorcycles S.L.  
Easi technologies and consulting services, S.L.  
Edooca, S. C.P.  
Grunver S.L.  
Ikuspyme  
Labsland Experimentia S.L.  
Linked Knowledge, S.L.  
Outreach tool S.L.  
Nexmachina Solutions, S.L.  
Planed education S.L.  
Quality Sensors Network  
Social Media Technologies, S.L.  
Marco Topo S.L.  
SHM Endurance Ventures, S.L.



## Bic Bizkaia Ezkerraldea

Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duten BIC Bizkaia Ezkerraldea inkubagailuaren helburu nagusia Ezkerralde, Meatzalde, Erandio eta Alonsotegi eskualdeetako enpresa ekimen berritzaileei laguntza ematea da. Barakaldoko Ilgner eraikin historikoan kokatutik, 2500 m<sup>2</sup>ko azalera dauka tamaina ezberdineko 50 enpresa modulutan banatuta. Gainera, enpresa sustatzaileek eta enpresek erabiltzeko lekuak dauzka: ekitaldi aretoa, trebakuntza gelak, sustatzaileentzako aretoak eta aparkaleku pribatua.

Inkubatutako enpresak: 23
Enplegua inkubatutako enpresetan: 66
Fakturazioa inkubatutako enpresetan: 1.600.000 €

## Inkubatutako enpresak

Argi-Tech, SL  
Allinfree, SLU  
Autosimpro, SL  
Däntak Centro Tecnológico Dental, SL  
Family Care Solutions, SLU  
Gembira Tech, SL  
Hashcode Engineering, SL  
Isetic, SL  
Industrial Data Mining, SL  
Indarweb XXI, SL  
Ingeniería y Técnicas Para Estructuras Metálicas, SL  
Keeptraining, SLU  
Macnalia, SL  
Osteophoenix SL  
Regenesis, SL  
Smart Mobility Products Alliance, Aie  
Sushi Trading XXI, SL  
Sharing Logistics, SL.  
Samylabs, SL  
Undersat Mobile Computing It, SL  
Techfriendly, SL  
Veedor Solutions SL  
Muon Tomography Systems, SL





## Ekimen sektorialak

Zenbait sektore eta arlotako jarduerak, berrikuntza eta nazioartekotzea bultzatzeko diru-laguntza sektorialak kudeatzen ditugu.



## Bizkaia Sortzailea

Beazen ekite-ildoetako bat sormen-sektorea bultzatzeari dagokiona da eta helburu hau zenbait tresnaren bitartez gauzatzen da. Horien artean daude Bizkaia Sortzailea foru programa eta BiDCren idazkaritza nagusia kudeatzea, hemengo eta nazioarteko ekitaldiei laguntza ematea eta UNESCOren sormen-hirien sarearen barruan egotea.

### Bizkaia Sortzailea programa

2017an Beazek, seigarren urtez jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Sortzailea programan parte hartu du. Honen helburua bideo-joko, ikus-entzunezko, moda eta produktuen diseinu sektoreetan enpresa proiektuak sustatzea da.

Aurkeztutako proiektuak:	36
Onartutako proiektuak:	24
3 urtera proiektatutako enplegua:	102
3 urtera proiektatutako fakturazioa:	10.515.000 €
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	575.631 €



### BIDC

Beaz, Bilbao Ekintzarekin batera, BiDC - Bilbao Bizkaia Design Council-en idazkaritza teknikoaz arduratzen da. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarri zuten ekimen honen helburua sormen-industriak Bilbo eta Bizkaiaren garapen ekonomiko eta nazioarteko proiektuak sustatzea da.

BiDC sormen-sektore ezberdinetako 216 enpresaren foroak eta ekonomia, kultura eta arlo akademikoetako hemengo 30 erakunde esanguratsuk osatzen dute. 2017an Beaz denekin harremanetan egon zen elkarrekin ekimenak antolatzeko eta sormen-industriak bultzatuko dituzten proiektuak garatzen elkarlanean aritzeko.

2017ko azaroaren 16tik 23ra BiDCk Bilbao Bizkaia DWeek-en hirugarren edizioa koordinatu du. Hamar sormen-arloekin lotutako 43

ekitaldi –bertokoak zein kanpokoak– izan ziren guztira, 20 eragile baino gehiagok sustatuak. Aste horretan BiDCk, halaber, Cities & Design eta Industries & Design jardunaldiak antolatu zituen. DWeek-en hirugarren edizioan azpimarratzekoa da ekitaldiak Azkuna Zentroko gune bakar batean bildu zirela eta jardueretan networkinga eta eragileen arteko elkarrekintza bultzatzeaz gain proiektu berriak definitzeko ahaleginak egin ziren.

#### 2017n laguntza jaso duten nazioarteko ekitaldiak: 6

- Bilbao International Art&Fashion
- Bilbao Maker Faire
- Bilbao Bizkaia Web Fest
- Fun & Serious Game Festival
- Selected from Bilbao 2017
- AzPlay 2017

## Bilbao Bizkaia Film Commission

Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2017an lankidetzahitzarmena sinatu zuten Bilbao Bizkaia Film Commission (BBFC) zerbitzu publiko eta doaneko legez garatzeko eta finkatzeko, hirira eta lurraldera filmatzeak erakartzeko eta kudeatzeko eta arreta emateko. Ekimen hau BIDCren barruan kokatzen da, zehazkiago ikus-entzunezko sektorea sustatzeko eremuan.

2017ko otsailean, BBFC European Film Commission Network-en barruan sartu zen eskubide osoko kide aktibo gisa. Sare horrek 30 herrialdetako Laurogeita sei batzorde elkartzen ditu, Europako zinemagintzako industria eta kultura bultzatzeko.

182 ikus-entzunezko ekoizpeni eman zaie erantzuna: 76 Euskadikoak, 63 Estatukoak eta 43 nazioartekoak

117 ikus-entzunezko ekoizpen filmatuta: 56 Euskadikoak, 37 Estatukoak eta 24 nazioartekoak

## Artisautza

2017an Beazek, bostgarren urtez, Bizkaiko Foru Aldundiak artisautza sektoreari laguntzeko daukan programan parte hartu zuen, Bizkaian artisautza sektorea dinamizatzeko eta berpizteko artisau elkarte eta enpresei laguntza emanez.

Artisau enpresek aurkeztutako proiektuak: 73

Artisau elkarteek aurkeztutako proiektuak: 6

Onartutako proiektuak: 72

Diru-laguntzaren zenbatekoa: 272.578€



## Ekintzailletza eta Gizarte berrikuntza

2017an Beazek, bostgarren urtez, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, eta Gizarte Ekintza Sailak, gizarte enpresa edo erakunde berritzaileen proiektu berriak abian jartzen laguntzeko bultzatzen duten Ekintzailletza eta Gizarte Berrikuntza Programaren kudeaketan parte hartu zuen. Ordezkaritza gehien duten eremuak zahartze, ezgaitasun eta garapen iraunkorrari zuzendutako gizarte-osasun zerbitzuak dira.

Gainera, elkarrekin lan egin da urte osoan lan-plan batean eremu horretako enpresek zabalkunde, gaikuntza eta lankidetzan dituzten beharrianak estaltzeko. Azpimarratzekoa da ere honelako proiektuen inpaktua neurtzeko 2016. urtean definitu zen tresna abian jarri zela.

Aurkeztutako proiektuak:	20
Onartutako proiektuak:	10
3 urtera proiektatutako enplegua:	115
3 urtera proiektatutako fakturazioa:	8.761.000 €
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	336.432 €





# Inpaktua enpresa-sarean

Beazek Bizkaiko Foru Aldundiaren Enpresa Berritzaileak Sortzeko programaren laguntzaz sortutako enpresa berritzaileen emaitzak ebaluatzen ditu urtero. 2017an egindako ebaluazioa 2012-2016 denboraldian sortutako enpresei dagokie.



## Startupen emaitzak 2012-2016

Enpresa kopurua	182
Aktibo dagoen enpresa-kopurua	148
Biziraupen-indizea	81,3%
Fakturazioa guztira	145.098.052,70 €
Batez besteko fakturazioa	980.392,25 €
Enplegua guztira	1038
Batez besteko enplegua	7,01
Kapital soziala guztira	21.502.343,28 €
Batez besteko kapital soziala	145.286,00 €
Guztira esleitutako diru-laguntzak	10.646.742 €

Enpresak sortzerakoan sektorerik dinamikoenak Eduki digitalak eta Internet, eta Sormen Industriak dira, nahiz eta biziraupen-tasarik txikiak dutenak izan. Sektoreok, aldi berean, lanpostu gehien sortzen dutenak dira; zehazki bion artean sortutako lanpostuen %39 osatzen dute, nahiz eta langile bakoitzeko Ekoizkortasun tasak, alderatuz gero, txikiak izan.

Industria tradizionalaren sektoreek (Fabrikazio eta muntatzea, Metalezko produktuen eraldaketa, Industria ekipoak) enpresak sortzeko tasa txikiak dituzte baina ondoren egonkortasun handiagoa dute (%100eko biziraupen-indizea) eta batez besteko enplegu-tasak eta fakturazioa gainerako sektoreetakoak baino altuagoak izan ohi dira.

Batez besteko kapital sozial handiena daukaten sektoreei dagokienez, bereziki Energia eta ekipo osagarriak nabarmentzen da, Biozientziak eta Osasuna, Metalezko produktuen eraldaketa eta Industria ekipoekin batera.

# Ekintzaitza eta berrikuntza sistemako eragile aktiboa

## Eusko Jaurlaritza-SPRIrekin batera egindako jarduerak

2017an hurrengo esparruetan jardun dugu elkarlanean:

### Beaz-SPRI lankidetzak-eremuak

SPRIren ekintzaitza programak (Ekintzaile, Luzaro-Ekintzaile eta MiniConnect)

Eusko Jaurlaritzaren Basque Funtsa kudeatzea

Eusko Jaurlaritzaren barne-ekintzaitza bultzatzeko ekimena

BIC Bizkaia (lehen Kabi 612 zena) inkubagailua aurreratuaren kudeaketa

Ezkerraldeko Enpresen Garapen Zentroa - BIC Bizkaia Ezkerraldea (lehen Cedemi) kudeatzea

Bind 4.0. Ekimenean parte hartu duten enpresa eragileekin garapen-proiektu bati ekin dioten startupak hartzea eta tutorizatzea.



## Bilboko Udala-Bilbao Ekintzarekiko lankidetzak-eremua

2017an elkarrekin dinamizatu dira ekimen hauek:

### Beaz-Bilbao Ekintza lankidetzak-eremuak

KBi Digital inkubagailuaren kudeaketa

BiDCren idazkaritzaren elkar-kudeaketa. Bizkaiko sormen-sektoreen zenbait ekimen bultzatzea

Bilbao Bizkaia Film Commission

## Bizkaiko Foru Aldundia - Masschallenge eta Cambridge Innovation Center (CIC)en arteko lankidetzaren eremua

2015ean Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzaren akordioa sinatu zuen munduko enpresa-bizkorgailurik handiena den MassChallengerekin, Bizkaiko ekintzaileak eta startupak berrikuntza-ekosistema globaleko merkatu, sare eta inbertsiogileekin konektatzeko.

Hitzarmenaren baitan, 2017an Beazek hemengo startupen lehiaketa bat antolatzen parte hartu zuen, irabazleak Masschallengek Bostongo egoitzan dauzkan bizkortze-zerbitzuak onuratu eta munduko finalaurrekora joan ahal daitezzen.

Beazek bere gain hartu du lehiaketaren dinamizazio eta koordinazioa eta 2017an 31 startupek esku hartu dute eta horietako 12k munduko erreferentziako bizkorgailua den Masschallengearen astebeteko egonaldia egin dute. Azpimarratzekoa da ere Vostok Ventures aukeratua izan dela Masschallengearen lau hilabetez bizkortzeko, zehazki Israelgo egoitzan. 2016an, halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak akordioa lortu zuen Massachusetts-eko beste erakunde batekin, CIC-ekin hain zuzen (Cambridge Innovation Center). Hitzarmen horren bidez 24 startupek 6 hilabeteko egonaldia egin ahal dute CICen MassGlobal Partners-en tutoretzapean.

Beazek aukera honen zabalkunde eta koordinazioan parte hartzen du eta horren ondorioz 2016an 4 startupek eta 2017an 8k bizkortze-erperientzia izan dute CICen.

Beazek aukera honen zabalkunde eta koordinazioan parte hartzen du eta horren ondorioz 2017an 4 hemengo 8 startupek bizkortze-erperientzia izan dute CICen



## Bizkaia Orekan: Eskualdeetako eragileekiko lankidetzaz

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, eta horrenbestez BEAZ, S.A.U.k ere, konpromisoa dauka ekonomia sustatzeko abian jarritako politiken norainoko eta inpaktu orekatua lortzeko.

Helburu hori izanik, funtsezkotzat jo da beren enpresa-sarearen lehiakortasuna lortzeko lanean ari diren lekuan lekuko ekonomiaren garapenerako eragileekin lankidetzaz jardutea.

Horretarako, 2016an abian jarri zen “Bizkaia Orekan” proiektua eta, horren baitan, Bizkaia 4 eskualdetan banatu da. Beazko eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko lantalde tekniko batek eskualdeetako mahaietan lan egiten dute lekuan lekuko eragileekin batera, eskualde bakoitzeko lehiakortasuna bultzatzeko asmoz. 50 pertsona baino gehiago elkarlanean aritu dira eta datozen 3 urteetan batera ekin beharreko erronkak identifikatu dituzte.

Lan-eremuak: enpresen lehiakortasuna, enpresa-inguruaren kalitatea eta eremuen espezializazioa.

4 eremu.

12 eskualde.

Tokiko 30 antolakunde eta eskualdetik gora inplikaturik eta antolakunde horietako 60 pertsona baino gehiago parte hartzen.

80tik gora lan eta segimendu-bilera eremu horietan.

Gobernatze-taldearen 12 bilera.

Proiektuaren bilera orokor bat 04/28an; tokiko 100 eragile inguruk parte hartu zuten.


65 erronka identifikaturik 2016an.

18 erronka lehenetsita 2017rako 2017.

12 erronka hasita eta garatuta urte horretan.

188 enpresa parte hartzen erronkako taldeek plazaratutako ekimenetan.

*Bizkaia orekan*



# Ekintzaile eta enpresa berritzaileen errekonozimendua

ON Bizkaia enpresa sariak Bizkaiko enpresa txiki eta ertainak goraipatzen dituzte gure Lurraldean jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzen egiten duten ekarpenarengatik. Bizkaiko Foru Aldundiaren programa-deialdietan aurkezten diren enpresen proiektuak saritzen dira, zenbait ataletan. startup eta spin-off-en ibilbidea ere saritzen da. 2017an laugarren edizioa burutu zen:



Errekonozimenduak emateko eta Bizkaiko enpresentzat interesgarriak diren gaiak aztertzeko, VI. Bizkaia Enpresa Bileraren antolatu zen eta 500 enpresak baino gehiagok parte hartu zuten.



Sorkuntza proiekturik onena	Electrorecycler
Berrikuntza proiekturik onena	Egoin
Nazioartekotze proiekturik onena	Permar
Bizkaia Sortzailea proiekturik onena	Cookplay
Gizarte berrikuntza proiekturik onena	Irrintzi
Spin off baten ibilbidea	Lointek
Startup baten ibilbidea	Euskal Kirol Apustuak

## Etekin operatiboa

2017an Beazek guztira Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren 7 programa kudeatu ditu. 450 enpresa baino gehiagok erabili dituzte Beazek ematen dituen zerbitzuak eta bere enpresa haztegien sarean 110 ekimen daude inkubatuta. Halaber, azpimarratzekoa da Beazek laguntza-programa edo zerbitzuen bidez harremana duela Bizkaiko 1.564 enpresa-multzoarekin.

2017	
Aurrekontu operatiboa (M€)	5
Batez besteko langile kopurua	43,5
Kudeatutako programak	7
Programetan kudeatutako M€	16,3
Kudeatutako espedienteak	766
Jarraipena egiten zaien espedienteak	958
Zerbitzuetan parte hartzen duten ETE eta startupak	> 450



Sabino Arana 8

48013 Bilbao

T. 944395622

[beaz@beaz.eus](mailto:beaz@beaz.eus)

[beaz.bizkaia.eus](http://beaz.bizkaia.eus)